



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urriaren 21a

121. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru-lege proiektuak:**

—11-25/LEY-00008. Foru-lege proiektua, zeinaren bidez Dynamobel SAri mailegua emateko baimena ematen baitzaio SODENA-Sociedad de Desarrollo de Navarra SLri (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-25/ITP-00034. Interpelazioa, enpleguaren arloko politika aktiboaren gaineko politika orokorrari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (5. or.).

—11-25/ITP-00035. Interpelazioa, haurdunaldia borondatez eteteari dagokionez emakumeen eskubideak bermatu eta babestearen arloko politika orokorrari buruzkoa. María Teresa Esporrín Las Heras andreak egin du (6. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—11-25/POR-00358. Galdera, Nafarroan helduen baheketa-programak zertan diren jakiteko. Isabel Aranburu Bergua andreak egin du (7. or.).

—11-25/POR-00359. Galdera, elikagai-xahuketari aurre egiteko jarduketari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (7. or.).

—11-25/POR-00360. Galdera, herritarrei laguntza begirunetsua, eraginkorra eta guztiz elebiduna bermatze aldera Foruzaingoak darabilen politikari buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (8. or.).

—11-25/POR-00361. Galdera, COVID iraunkorra duten pazienteei buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (9. or.).

—11-25/POR-00362. Galdera, lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea sendotze aldera Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak hartutako neurriari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (9. or.).

—11-25/POR-00363. Galdera, gure erkidegoko autonomoei laguntze aldera Nafarroako Gobernuak hartu beharreko neurri zehatzei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (10. or.).

- 11-25/POR-00364. Galdera, genero-indarkeriaren biktimak babesteko eskumuturreko telematikoen akatsek Nafarroan izandako intzidentziari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00365. Galdera, Legeak Lurralde Kohesiorako Departamentuari exijitzen dizkion diziplina-edo erantzukizun-neurriei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00366. Galdera, Belateko tunelen lizitazioan Accionaren kaudimen teknikoaren egiaztatze-txostena eskatu izanari dagokionez Herri-lanen zuzendari nagusiak egindakoari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (12. or.).
- 11-25/POR-00367. Galdera, N-121-A errepidea 35+300 eta 40+900 kilometro-puntuen artean 2+1 bide bihurtzeko III. tartea esleitzeko proiektuari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (12. or.).
- 11-25/POR-00368. Galdera, Tuterako lohien planta zentralizatua handitzeko proiektuari buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00369. Galdera, Traumatologia Zerbitzuaren egoerari buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00370. Galdera, plangintza elektrikoaren proposamenean eskatutakoa onartu ezean Nafarroan kaltetuta aterako lirakeen proiektuei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/POR-00371. Galdera, Desgaitasunaren Arreta Integralerako San José Zentroaren osasun publikoko baldintzei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/POR-00372. Galdera, Israelek munduko tranpolin-txapelketan parte-hartzeari buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00373. Galdera, Nafarroako Gobernuak ZF Aftermarket multinazionalak Nafarroan dituen lantegietako enplegua defendatzeko egin dituen zuzemenei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00374. Galdera, ekitaldi instituzional batean Nafarroa identifikatzen duen bandera ez egoteari eta inkonstituzional deklaraturako sinboloak erakusteari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (16. or.).
- 11-25/POR-00375. Galdera, Nafarroan emakumeen sexu- eta ugaltze-eskubideak bermatzeko Nafarroako Gobernuak duen konpromisoari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (17. or.).
- 11-25/POR-00376. Galdera, autonomoen kuoten kotizazioa aldatzeari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (17. or.).
- 11-25/POR-00377. Galdera, jakiteko zertan den prestazio handiko trenaren eta Euskal Y-aren arteko lotura. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (18. or.).
- 11-25/POR-00378. Galdera, N-121-A errepidearen III. tartea esleitzeko atzerapenari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (18. or.).

---

**A saila:**  
**FORU-LEGE PROIEKTUAK**

---

## **11-25/LEY-00008. Foru-lege proiektua, zeinaren bidez Dynamobel SArI mailegua emateko baimena ematen baitzaio SODENA-Sociedad de Desarrollo de Navarra SLri**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 16an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2025eko urriaren 17an hartutako Erabakiaren bidez, foru-lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari. Proiektu horren bidez, Dynamobel SArI mailegua emateko baimena ematen zaio SODENA-Sociedad de Desarrollo de Navarra SLri.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Osoko Bilkuraren esku jartzea ea zuzenean eta irakurketa bakarrean izapidetuko ote den aipatutako foru-lege proiektua.

**2.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan bukatuko baita. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Foru-lege proiektua, zeinaren bidez Dynamobel SArI mailegua emateko baimena ematen baitzaio SODENA-Sociedad de Desarrollo de Navarra SLri**

### ZIOEN AZALPENA

Sociedad de Desarrollo de Navarra SL sozietate publikoak Nafarroako Parlamentuaren berriazko baimena eskatu du bi milioi euroko abala emateko Dynamobel SArI, gainerako bazkideek beste milioi bat euroko ekarpena, partaidetzako maileguaren eran, egiteko baldintzaren mende.

Eskaera horrek honako hauek ditu oinarri: 1/1984 Foru Legea, urtarrilaren 2koa, Nafarroaren Garapen Sozietatea (SODENA) sortzeari buruzkoa; 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa; 19/2024 Foru Legea, abenduaren 26koa, 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa –hark baimendutako gehieneko zenbatekoaren barruan dago–, eta Nafarroako Gobernuaren Erabakia, 2025eko apirilaren 16koa, Sociedad de Desarrollo de Navarra SL (SODENA) sozietate publikoari baimena ematen diona 2025eko ekitaldian abalaz emateko, oro har, 20.000.000 euroko mugara arte.

Arau horietan ezarritakoaren esparruan, eta kontuan hartuta eragiketaren garrantzi berezia, enpresa horrek Azkoiengintzaren inguruan duen eragin sozioekonomikoa oso handia baita, egokia da berriazko baimena ematea SODENari Dynamobel SA finantza dezan.

**Artikulu bakarra.** Dynamobel finantzatzeko baimena.

Baimena ematea Sociedad de Desarrollo de Navarra SL sozietate publikoari bi milioi euroko abala emateko Dynamobel SArI, gainerako bazkideek beste milioi bat euroko ekarpena, partaidetzako maileguaren eran, egiteko baldintzaren mende.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean.

---

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-25/ITP-00034. Interpelazioa, enpleguaren arloko politika aktiboen gaineko politika orokorrari buruzkoa**

*MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egindako interpelazioa, enpleguaren arloko politika aktiboen gaineko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroan, Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta anitz baterako programa-akordioak lehentasunezko helburu hauek ezartzen ditu: enplegua sortzea eta enpleguaren kalitatea hobetzea, Nafarroako lanosasuna eta desberdinkeria desagerraraztea, genero-arrakala eta langabezia murrizteko, zailtasun gehien dauzkaten kolektiboen babesa hobetuta. Horretarako, enplegu-politika aktiboak garatuko dira, lehentasuna emanez lan-eremuan zailtasun gehien dituzten pertsoneri; emakumeak, gazteak, 45 urtetik gorakoak, iraupen luzeko langabeak, migraziozkoak, desgaitasuna dutenak eta bazterkeria pairatzeko arriskuan daudenak.

Enplegu-politika aktiboen arloko politika orokorra zein izanen den jakiteko, interpelazio hau aurkezten dugu.

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

## **11-25/ITP-00035. Interpelazioa, haurdunaldia borondatez eteteari dagokionez emakumeen eskubideak bermatu eta babestearen arloko politika orokorrari buruzkoa**

*MARÍA TERESA ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Esporrín Las Heras andreak egindako interpelazioa, haurdunaldia borondatez eteteari dagokionez emakumeen eskubideak bermatu eta babestearen arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Maite Esporrín Las Heras andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, haurdunaldia borondatez eteteari dagokionez emakumeen eskubideak bermatu eta babestearen arloko politika orokorrari buruzko interpelazio hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Azkenaldian, zalantzan jartzen ari dira emakumeen oinarrizko eskubideak, batez ere haurdunaldia borondatez eteteari dagokionez bereziki, nahiz eta eskubide hori gure ordenamendu juridikoak aitortu, eta funtsezkoa izan emakumeen askatasunerako eta osasunerako.

Egoera hori gizartean sortzen ari den kezka ikusita, eta Nafarroako Gobernuak emakumeen berdintasunarekin eta eskubideekin duen konpromisoarekiko koherentziaz, beharrezkotzat jotzen dugu Foru Gobernuari interpelazio hau egitea, jakiteko zein den bere posizioa eta zer neurri jarri nahi dituen abian gure erkidegoan eskubide horren babes osoa bermatzeko.

Iruñean, 2025eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-25/POR-00358. Galdera, Nafarroan helduen baheketa-programak zertan diren jakiteko***ISABEL ARANBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aranburu Bergua andreak egindako galdera, Nafarroan helduen baheketa-programak zertan diren jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Isabel Aranburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilari Fernando Domínguezek ahoz erantzun dezan:

Azken egunotan jakin dugunez, Andaluziako Autonomia Erkidegoan sortu diren arazo larriak ikusita, Osasun Ministerioak autonomia-erkidego guztiei eskatu dizkie egiten dituzten baheketa-programei buruzko datuak.

Hauxe galdetzen diogu Osasuneko kontseilariari: zein da helduen baheketa-programen egoera Nafarroan?

Iruñean, 2025eko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Isabel Aranburu Bergua

---

**11-25/POR-00359. Galdera, elikagai-xahuketari aurre egiteko jarduketei buruzkoa***CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, elikagai-xahuketari aurre egiteko jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer ekintza bultzatu ditu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak elikagai-xahuketari aurre egiteko?

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

---

**11-25/POR-00360. Galdera, herritarrei laguntza begirunetsua, eraginkorra eta guztiz elebiduna bermatze aldera Foruzaingoak darabilen politikari buruzkoa**

*BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egindako galdera, herritarrei laguntza begirunetsua, eraginkorra eta guztiz elebiduna bermatze aldera Foruzaingoak darabilen politikari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilari Amparo López Antelo andreak ahoz erantzun dezan:

Prentsaren bidez jakin dugu Hizkuntz Eskubideen Behatokiak salaketa bat jarri duela, Foruzaingoak arreta ele bitan ematen ez duelako; salaketaren arabera, Foruzaingoak gaztelaniaz soilik egiten ditu bere komunikazioak –hartara, elebitasuna ezartzen duen araudia urratzen du–, eta, euskara erabiltzen duenean, modu “trakets eta ulergaitzean” erabiltzen du, eta gogora ekartzen du Arartekoak langile euskaldunak edo itzulpen-zerbitzua edukitzeko gomendioa egin ziola.

Hori dela-eta, Geroa Baik honako hauek eza-gutu nahi ditu:

Foruzaingoak zer politika darabil arreta elebidunaren arloan, herritarrei arreta begirunetsua, eraginkorra eta guztiz elebiduna bermatzeko?

Iruñean, 2025eko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Blanca Isabel Regúlez Álvarez

**11-25/POR-00361. Galdera, COVID iraunkorra duten pazienteei buruzkoa***DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako galdera, COVID iraunkorra duten pazienteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Daniel López Córdoba jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak urriaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

COVID iraunkorraren ezaugarri nagusia da COVID-19aren sintomak mantentzen direla hasierako infekzioa igaro eta denbora batera, edo sinptomarik gabe denbora bat igaro ondoren berriz agertzen direla, eta, edozein adin-tartetako pertsoneri eragiten badie ere, ohikoagoa da adin ertaineko emakumeen artean.

COVID-19aren osasun-krisiaren ondoren, departamentuak talde tekniko bat eratu zuen COVID-19 iraunkorra zuten pazienteentzako arreta integratuko zirkuituak ezartzeko eta koordinatzeko, eta, geroago, barne-medikuntzako kontsulta espezifikoa bat sortu zen, ia bi urtez funtzionatu zuena gure erkidegoan. Kontsulta hori ez da jada existitzen, baina gure biztanleriaren zati batek sindrome hori izaten jarraitzen du; beraz, honako galdera hau egingen dizugu:

Zertan da COVID-19 iraunkorra duten pazienteentzako laguntza?

Iruñean, 2025eko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

**11-25/POR-00362. Galdera, lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea sendotze aldera Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak hartutako neurriei buruzkoa***MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea sendotze aldera Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro García andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea tresna eraginkorra da babes ofizialeko etxebizitzak mobilizatzeko eta etxebizitza mota hori eskaintzaren merkatuan berriro sartzeko. Horrela, etxebizitza eskuratzeko aukera ematen zaie babes ofizialeko etxebizitzaren eskatzaileei. Horregatik, uste dugu beharrezkoa dela praktika horren aldeko apus-

tua egiten jarraitzea. Zure departamentua zer neurri hartzen ari da lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea indartzeko?

Iruñean, 2025eko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

---

## **11-25/POR-00363. Galdera, gure erkidegoko autonomoei laguntze aldera Nafarroako Gobernuak hartu beharreko neurri zehatzei buruzkoa**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, gure erkidegoko autonomoei laguntze aldera Nafarroako Gobernuak hartu beharreko neurri zehatzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer neurri zehatz hartuko du, aurrekontu-zuzkidura nahikoarekin hartu ere, gure erkidegoko autonomoei laguntzeko?

Iruñean, 2025eko urriaren 16an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

## **11-25/POR-00364. Galdera, genero-indarkeriaren biktimak babesteko eskumuturreko telematikoen akatsek Nafarroan izandako intzidentziari buruzkoa**

*ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak egindako galdera, genero-indarkeriaren biktimak babesteko eskumuturreko telematikoen akatsek Nafarroan izandako intzidentziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer intzidentzia izan dute Nafarroan genero-indarkeriaren biktimak babesteko eskumuturreko telematikoen akatsek?

Nafarroan, 2025eko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

## **11-25/POR-00365. Galdera, Legeak Lurralde Kohesiorako Departamentuari exijitzen dizkion diziplina- edo erantzukizun-neurriei buruzkoa**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Legeak Lurralde Kohesiorako Departamentuari exijitzen dizkion diziplina- edo erantzukizun-neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusita Ustelkeriaren kontrako Bulegoaren zuzendariaren ebazpena, zeinaren bidez ziurtatzen baitu Lurralde Kohesiorako Departamentuak Belateko tunelen bikoizketa esleitzeko Mahaiko idazkaria zigortu zuela esleipen horretan geratutakoa salatzegatik, eta, are gehiago, Herri-lanen zuzendari nagusiak duela egun batzuk Senatuan adierazi zuelarik hura Landabengo nabera joatean "hobeki pasatuko zuela", zure gobernuak pentsatuta al dauka legeak exijitzen dituen diziplina- edo erantzukizun-neurriak abiaraztea zigor hori sustatu duenaren kasuan?

Iruñean, 2025eko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## **11-25/POR-00366. Galdera, Belateko tunelen lizitazioan Accionaren kaudimen teknikoaren egiaztatze-txostena eskatu izanari dagokionez Herri-lanen zuzendari nagusiak egindakoari buruzkoa**

*PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, Belateko tunelen lizitazioan Accionaren kaudimen teknikoaren egiaztatze-txostena eskatu izanari dagokionez Herri-lanen zuzendari nagusiak egindakoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure ustez, legezkoa al da López Vera Herri-lanen zuzendari nagusiak Accionaren kaudimen teknikoaren egiaztatze-txostena eskatzea tunelak bikoizteko kontratazio-mahaiak bere esleipen-proposamena egin ondoren?

Iruñean, 2025eko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

## **11-25/POR-00367. Galdera, N-121-A errepidea 35+300 eta 40+900 kilometro-puntuen artean 2+1 bide bihurtzeko III. tarte esleitzeko proiektuari buruzkoa**

*ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egindako galdera, N-121-A errepidea 35+300 eta 40+900 kilometro-puntuen artean 2+1 bide bihurtzeko III. tarte esleitzeko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduak xedatzen duenaren babesean, honako galdera hau egiten dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da N-121-A errepidea 35+300 eta 40+900 kilometro-puntuen artean 2+1 bide bihurtzeko III. tarte esleitzeko proiektua?

Iruñean, 2025eko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

## 11-25/POR-00368. Galdera, Tuterako lohien planta zentralizatua handitzeko proiektuari buruzkoa

MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, Tuterako lohien planta zentralizatua handitzeko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduak xedatzen duenaren babesean, honako galdera hau egiten dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da Tuterako lohien planta zentralizatua handitzeko proiektua?

Iruñean, 2025eko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Olga Chueca Chueca

## 11-25/POR-00369. Galdera, Traumatologia Zerbitzuaren egoerari buruzkoa

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, Traumatologia Zerbitzuaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera aurkezten du Nafarroako Gobernuak urriaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Medikuen Sindikatuak legebiltzar honetan egindako lan-saioan esandakoa eta traumatologia-zerbitzuaren egoera aztertu ondoren, honako galdera hau egin nahi dugu:

Zer egingo du departamentuak zerbitzu horri dagokionez?

Iruñean, 2025eko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortín

## **11-25/POR-00370. Galdera, plangintza elektrikoaren proposamenean eskatutakoa onartu ezean Nafarroan kaltetuta aterako liratekeen proiektuei buruzkoa**

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, plangintza elektrikoaren proposamenean eskatutakoa onartu ezean Nafarroan kaltetuta aterako liratekeen proiektuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak xedatzen duenaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak urriaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusita Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak iragarri zuela alegazioak aurkeztu nahi dizkiola plangintza elektrikoaren proposamenari –izan ere, ez dira aintzat hartu foru-erkidegoak egindako eskari gehienak–, eta kontuan hartuta horrek eragina izan dezakeela etorkizunean enpresa-proiektuetan, kontseilariari honako hau galdetzen diogu: Nafarroan zer proiektu gerta litezke kalteturik egindako eskariak –kasu honetan, alegazioen bidez– aintzat hartzen ez badira?

Iruñean, 2025eko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

## **11-25/POR-00371. Galdera, Desgaitasunaren Arreta Integralerako San José Zentroaren osasun publikoko baldintzei buruzkoa**

*EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Desgaitasunaren Arreta Integralerako San José Zentroaren osasun publikoko baldintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

2025eko urriaren 23ko Osoko Bilkurarako galdera arrunta:

Eskubide Sozietako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria:

Ba al dakizu osasun publikoari dagokionez zer baldintzatan dagoen Iruñeko Desgaitasunaren Arreta Integralerako San José Zentroa?

Iruñean, 2025eko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

## **11-25/POR-00372. Galdera, Israelek munduko tranpolin-txapelketan parte-hartzeari buruzkoa**

*DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak aurkeztutako galdera, Israelek munduko tranpolin-txapelketan parte-hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Daniel López Córdoba, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkezten du, Kultura, Kirol eta Turismo konseilariak 2025eko urriaren 23ko Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Heldu den azaroan, munduko tranpolin-txapelketa egingen da Navarra Arenan. Munduko txapelketa horrek berriz jarriko du Nafarroa mapan, kirol-ekitaldien erreferentziatzko leku gisa.

Baina ekitaldi horrek badu itzal bat: nazioarteko lehiaketa denez, Israelgo taldeak parte hartzeko asmoa duela adierazi du. Gazako gatazkak eta genozidioak, gaur egungo su-etena gorabehera, konponbide eraginkorra izatetik urrunegi daude oraindik, eta nazioarteko zehapenik ez dagoenez, erakundeok eta ordezkari publikoek salaketa-neurriak hartzen jarraitu behar dugu, eta neurriak hartu Gazako zerrendaren egoeraren aurrean, hala nola Israeli debekatzea gure mugen barruan gertatzen den lehiaketa guztietan parte hartzea.

Zure departamentuak zer neurri hartuko du Israelek munduko tranpolin-txapelketan parte hartzeari dagokionez?

Iruñean, 2025eko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

## **11-25/POR-00373. Galdera, Nafarroako Gobernuak ZF Aftermarket multinazionalak Nafarroan dituen lantegietako enplegua defendatzeko egin dituen zuzemenei buruzkoa**

*LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak ZF Aftermarket multinazionalak Nafarroan dituen lantegietako enplegua defendatzeko egin dituen zuzemenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta

Digitalerako kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela gutxi, kezka handiz jakin dugu ZF Aftermarket enpresak antolamendu- eta ekoizpen-arrazoiengatik kontratuak aldi baterako eteteko enplegu-erregulazioko espedienteak aurkeztu duela. Espedienteak Estatuko bost zentrori eragiten die, horietako hiru Nafarroan: Corella, Mutiloa eta Eguesibar.

Nafarroako hiru lantegiek 800 lanpostu inguru biltzen dituzte: 600 inguru Corellan, ehun inguru Mutiloan eta 50 inguru Eguesibarren.

Nafarroako industriak jaso duen kolpe eta albiste kezkarri hori ikusita:

Zer zuzemen egin du Nafarroako Gobernuak ZF Aftermarket multinazionalak Nafarroan dituen lantegietako enplegua defendatzeko, eta zer emaitza izan dute zuzemen horiek?

Iruñean, 2025eko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

## **11-25/POR-00374. Galdera, ekitaldi instituzional batean Nafarroa identifikatzen duen bandera ez egoteari eta inkonstituzional deklaraturako sinboloak erakusteari buruzkoa**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, ekitaldi instituzional batean Nafarroa identifikatzen duen bandera ez egoteari eta inkonstituzional deklaraturako sinboloak erakusteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak urriaren 23ko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Presidente andrea, duela gutxi Eusko Jaurlaritzaren egoitzan Pradales lehendakariarekin egindako bileran, nabarmena izan da Nafarroako bandera –gure erkidegoaren ikur ofiziala– falta zela eta Konstituzio Auzitegiak duela berrogei urte baino gehiago balio gabetu zuen ikur bat zegoela.

Zure ustez, onargarria al da nafar guztiak ordezkatzeko zenituen ekitaldi instituzional batean identifikatzen gaituen bandera ez egotea eta inkonstituzional deklaraturako sinboloak erakustea?

Iruñean, 2025eko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## **11-25/POR-00375. Galdera, Nafarroan emakumeen sexu- eta ugaltze-eskubideak bermatzeko Nafarroako Gobernuak duen konpromisoari buruzkoa**

*AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak aurkeztutako galdera, Nafarroan emakumeen sexu- eta ugaltze-eskubideak bermatzeko Nafarroako Gobernuak duen konpromisoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariari zuzendua, 2025eko urriaren 23ko Osoko Bilkurako gai-zerrendan sar dadin:

Nafarroako Gobernuak zer konpromiso dauka Nafarroan emakumeen sexu- eta ugaltze-eskubideak bermatzeari begira?

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

---

## **11-25/POR-00376. Galdera, autonomoen kuoten kotizazioa aldatzeari buruzkoa**

*EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako galdera, autonomoen kuoten kotizazioa aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuak urriaren 23ko Osoko Bilkuran erantzuteko.

Nafarroako Gobernuko lehendakaria:

Autonomoen kuoten kotizazioen balizko aldatetaren aurrean, zer iritzi duzu Nafarroako Gobernuko lehendakaria zaren aldetik?

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

## 11-25/POR-00377. Galdera, jakiteko zertan den prestazio handiko trenaren eta Euskal Y-aren arteko lotura

*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zertan den prestazio handiko trenaren eta Euskal Y-aren arteko lotura.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite Navascués-ek urriaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ezagutu diren informazioen arabera, alde batera utzi da Aralarko aukera eta Nafarroako Gobernuak 2018an proposatutako hirugarren aukera aztertzen ari da prestazio handiko tren eta Euskal Y-a lotzeko. Zertan da auzi hori?

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

---

## 11-25/POR-00378. Galdera, N-121-A errepidearen III. tartea esleitzeko atzerapenari buruzkoa

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, N-121-A errepidearen III. tartea esleitzeko atzerapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

N-121-A errepidearen III. tartea esleitzeko atzerapena ikusita, Lurralde Kohesiorako Departamentuko zenbait funtzionarioek uste du "kontsolaziosaria" zela hori, Belateko tunelak bikoizteko obren esleipen-hartzaile ateratzen ez zenarentzat. Gobernuko lehendakariak nola azaltzen du Lurralde Kohesiorako Departamentuan zer ari den gertatzen, funtzionario horiek hori pentsa dezaten?

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea



